



Abertzaletasuna krisian

M A H A I - I N G U R U A

■ Jose Mari Esparza

■ Xabier Arzalluz

■ Txema Montero

IRITZIAK

• Eider Alkorta

• Ainhoa Larrañaga

• Emilio Lopez Adan

Sinestu, adostu eta ausartu behar du abertzaletasunak

Abertzaletasunak krisi egoera bizi du, aurrera egiteko bide berririk aurkitzen ez duelako, edota, esate baterako, krisia bizi du Espainiak neurria hartu diolako. Edo bestalde ere, Europa aldatzen ari delako: Europar Batasuneko estatuen arteko subiranotasun lehia eta estatuen deszentralizazioa direla eta”. Azkenaldion entzundako hitzak dituzu aurreko hauek. Guk tesi modura helarazi genien gure gonbidatuei. Solasaldian nahiz iritzietan abertzaletasunaren krisia eta abertzaleen zatiketaren zioak islatu dira. Alabaina, gogoetak abertzaletasuna suspertzeko berebizikoak iruditu zaizkigu.

■ Mikel Asurmendi

Argazkiak: Dani Blanco

Bideoa: Lander Arbelaitz

Abertzaletasunak bizi duen egoerari buruzko zuen ikuspegia bildu nahi dugu hasteko.

XABIER ARZALLUZ. Abertzaletasunaren irudia ez da Europan ongi egokitua; ezta, oro har, nazionalismoarena ere. Kosovo da garai honetako mirari nazionalista. Europaren laguntzaz aurrera egin duena. AEBek ere zalantzak izan zituen: “Kontuz Jugoslavia ukitzarekin!”. Kosovokoa harrigarria da. Eslovenia altxatu zenean, Milosevicek, Jugoslaviako presidentea zela, tankeak bidali zituen. Europar Batasunak horiek guztiak bedeinkatu zituen interesatu zitzaizolako. Gurearekin kezkatuta daude, halere Fernandez Ordoñez (Gonzalezen garaiko atzerri ministroa) katalanekin kezkatuago zegoen euskaldunokin baino. Dena den, Madrilen gehiago sinesten dute Euskal Herriaren eta Kataluniaren independentzian katalanek eta euskaldunok baino. Aizu, zuk [Asurmendi] “abertzaletasuna krisian dagoela” idatzi duzu. Nik, hasteko, gaia Europan kokatu dut, baita hau esan ere: abertzaletasuna ez dago krisian, abertzaleok baizik.

JOSE MARI ESPARZA: “Gure” espainiartasuna ia inork zalantzan jartzen ez zuen gizartean jaio nintzen ni neroni. Abertzaletasuna eta independentzia hitz arrotzak eta larriak ziren Tafallan, Nafarroan eta Euskal Herriko leku askotan. Eliz prozesioak Espainiako bandera artean egiten ziren. Hitz batean, euskara ez zen ezta Euskaltzaindian ere mintzatzen orduan. Abertzaletasuna frankismoaren hondarrean jalgi zen. Egun aldiz, abertzaletasuna Espainiako eta hemengo politikarien mintzalekuetan dago, askotan gutxietsia izateko bada ere. Horrek alta, bizirik dagoela erakusten du. Eta Europan aldian-aldian ematen den koiuntura egoki horietako batean, abertzaleen arteko gutxieneko akordioak lortzen badira, hasteko eta behin, geure buruak harritu ditzakegu. Independentismoak emaitza arras garrantzikoak lortu ditu azken urteotan. Independentistek arbola astindu dute. Batzuek intxaurrak ondo probestu dituzte, batzuek hobeto beste batzuek baino, alabaina egungo egoera ezin da ulertu abertzaletasun erradikala ulertu gabe. Esate baterako: nola liteke Ertzaintza egotea gaur egun, *Que se vayan* kanpaina



Txema Montero, Xabier Arzalluz eta Jose Mari Esparza.

kalera atera ez bagenu. Hobeto egon gintezkeela, bistan da. Nola? Hori besterik da.

TXEMA MONTERO. Xabierrek esan duenaren harian... Jugoslavia ohia eraitsi zenean, Felipe Gonzalezek esan zuen: "Horiek nazionalismo amorratuak dira". Hogei urte eta gero, nazionalismo horiek bake tokiak dira. Gonzalez haxe galdetuko nioke gustura: "Amorratuak deitzen dituzun nazionalismo horiek gaizkiaren eragile bakarrak ote?". Nire ustez, ez, noski. Estatu osatu duten nazio horien onespenuk autodeterminazioaren mitoa puskatu dute. Halere, honek guztiak ez gaitu desbideratu behar funtsezkotik: kolonia ohiko nazionalismoak eta metropolikoak kasu ezberdinak dira. Jugoslavia ohikoa salbuespena da. Beraz, alderatu dezagun alderagarria dena. Baltikoko nazioak independenteak izan ziren Stalinek Sobietar Errepublikan Sozialisten Batasunera bildu zituen arte.

X. ARZALLUZ. Independentekaldi labur batez.

T. MONTERO. Independentekaldi halere. Europa eta nazionalismoaren gaia ulertzeko hitz gakoak kontsentsua eta alderagarritasuna dira. European kontsentsua bada "ezinezkoa" onartzen da. Kontsentsua prozesu deliberatua izaten da batzuetan, eta beste batzuetan inposaketan ondorioa. Batzuek halere, euskal auzia Kosovoko egoerarekin alderatu dute, baina Kosovoren onarpena AEBei esker izan zen. Euskal Herriak Estatu independentea izateko aukera gutxi du, ez bada euskaldunon gehiengoak argi eta garbi adierazten dugulako. Gure herriaren bilakaera politikoaren determinazioan biolentziaren fenomeno gako da, biolentziak gure bilakaera oztopatzen du. Frankismoaren biolentziak herri honen erantzuneko biolentzia legitimatu zuen, eta legitimazioa abertzaletasunari eman zion bereziki, errepresioaren objektu nagusia izan zelako. Narratiba historikoaren epika gorpuztu zen, errepresioaren sinboloak abertzaleok geure egin genituen. ETA Gernikako bonbardaketa eta frankismoko errepresio bortitzaren ondorio da.

Honek guztiak abertzaletasuna eta ETA nahasi ditu. Alabaina, hogeita hamar urteotan, iraganean gertatu zenaren alderantzizkoa gertatzen da: narratiba ofizialak nazionalismoa eta biolentzia batu ditu eta legitimazioa galdu dugu. Legitimazio hori ere gakoa da abertzaletasunaren krisia ulertzeko.

Trantsizioa hizpide: nola atera zen abertzaletasuna aldi hartatik? Zu, Xabier Arzalluz, parte izan zinen. Lanak ondo egin al ziren?

X. ARZALLUZ. Nork bere ikuspuntua du. ETAREN nahia –Xibertan manifestatu zen ETA militarrena– abertzaleok Madrilekin hitz egitea zen, elkarrekin. Hori oso polita da, interesgarria, baina akats bat dauka: abertzaleok elkarrekin baina ETAREN pistola-pean. Horren ondorioz indar abertzaleak ezin dira bateratu izan. EAJkoak ginen eta izan gara lehen-lehenik ETAREN menpe, ez Espainiako Gobernua. Guk trantsizioan parte hartu genuen hutsunea bete behar zelako, bestela UCDEk eta PSOEek beteko zuten-eta. Guretzat parte-hartzea funtsezkoa zen, betiere,

gure aurrekoek Errepublika garaian atera zuten autonomia baino txikiagoa ez ateratzeko. Ni independentista naiz eta posible izan balitz beste baldintza batzuk jarriko genituzkeen. Baina aukera bakarra zegoen, eta herria egoera oso larrian. Trantsizioa ondo atera zen. Irujok zioenez: “Beharrezkoa bada, Konstituzioa onartu behar da”. Errepublika garaian onartu ez izanak kendu zien haiei autonomiaren aukera. 1932an, euskaldunek autonomia lortu izan balute, agian gure historia ezberdina izango zen. Ni horrek inpresionatu ninduen. Azkenik, Konstituzioa onartu gabe, Gernikako Estatutua aurrera atera genuen. Eta ez zen 1936koa baino eskasagoa izan. Horra gure lorpena!

J. M. ESPARZA: Ez nator bat Xabierrekin, jakina. Trantsizioa oso gaizki kudeatu zen, beldurrez, epel. Botere faktikoen presioak izan ziren –Nafarroaz ari naiz– baina orduko baldintzak hobezinak izan ziren. Telesforo Monzonek hauxe zioen: “Hobe dugu pitxar bat osorik –nahiz hutsik izan– puskatua baino”. Hegoaldea zatituta eta autonomiaren zelofanezko paperean bilduta ematea baino, alegia. Trantsizioan presa izuga-

M a h a i k i d e a k

■ XABIER ARZALLUZ



EAJko EBBko presidente ohia

1932ko abuztuaren 24an sortu zen Azkoitian (Gipuzkoa). Zuzenbidea, filosofia eta letretan lizentziatua da. 1977tik 1979ra Espainiako Kongresuan legebiltzarkide izan zen, 1980tik 2004ra berriz EAJko lehendakaria. Familia karlistan jaioa. Amaren joera jansenistaren eragina jaso zuen. Erljio ikasketak egin zituen eta 1967an Jesus Konpainiaren apaiza izendatu zuten. 1970ean Konpainiatik kanporatua izan zen.

■ JOSE MARI ESPARZA



Txalaparta argitaletxeko editorea

Tafallan (Nafarroa) sortu zen 1951n. Altaffaylla Kultur Taldearen sortzailea da. 1988tik Txalaparta argitaletxea zuzentzen du. Editorea da. Argitaletxe honek 400 liburu baino gehiago karrikaratu ditu gaztelaniaz eta 200 euskaraz. Editorea izateaz gainera, artikulgile eta idazle oparoa da. Saio historiko ugari idatzi du. Azken liburua *Como puta por rastrojo. Origen y uso de algunos dichos navarros* da (Altaffaylla, 2009).

riak izan ziren boterea ukitzeko. Batzuk ez ziren kon-
turatu nonbait, ezin zela trantsizio demokratikorik izan
euskal auzia ebatzi gabe. Gakoa negoziazioan trebeak
izatea zen, arazoa gori-gori zegoen, PSOEko eta
UCDko sektoreek ez zekiten argi nola jokatu Nafarro-
an. Lurraldetasunaren gaia onartuko zuketena, baldin
eta abertzaleek planto egin izan balute. Hanka sartzeko
izugarria izan zen, gure historia garaikideko handiena.
Gainera bigarren aldia zen. Xabierrek Irujo aipatu du,
baina Irujok 1932an eskatu zuena Monzonek 1977an
eskatu zuen: “Ez eman pausorik Nafarroarik gabe”.
Dena den, Etxamendi eta Larralderen kantuak dioenez
“Pentze onaren erostekotan artaldea dugu saldu”.
Nolako iragana halako ondorioak.

T. MONTERO. Nik ez dakit egoera nolakoa litzate-
keen egun, trantsizioa bestelakoa izan balitz. Haatik,
Miguel Sanz-i Xedapen Iragankorra indargabetu
behar dela entzuten diot. Batzuek Konstituzioa aldatu
nahi dute, baina eskubideak areago murrizteko.
Beraz, xedapena lortu zuenak ez zuen abertzaleon
kontra egin. Nire ustez, EAJk 1977an, boterea har-
tzearen alde egin zuenean, ez zuen boterea beretzat

nahi, euskaldunon komunitate osatuaren alde egite-
ko baizik. Beti aipatu da EAJren anbiguotasun kalku-
latua, baina ezker abertzalearen anbiguotasun kalku-
latuaz ez da hainbeste hitz egin. Ezker abertzalearena
honelakoa izaki: “Ez da horren gaizki autonomista-
erregionalistek instituzioak kudeatzea, bitartean
herria egiten baita. Artean, ni esentzien jagolea,
aldian-aldian esango dut, ez da nahikoa, abertzaleon
helburua independentzia baita”. Bada garaia ambi-
guotasun kalkulatu hau aztertze eta baztertze.

1932ko eta 1936ko estatutuak kenduta ez dut eza-
gutzen Euskal Herria egituratzeko proiektu naziona-
lik (hara, ez dira nazionalak, Iparraldea ahazten bai-
tugu berehala. Ulertzeko diot). Estatutuak eta
Kontzertu Ekonomikoak ondo aztertzea inportantea
da bizi dugun egoera ulertzeko. Gernikako Estatutu-
arena ongi izan zen. Ez zen nire aukera, ni orduan oso
ideologizatua nintzen. Monzonen pitxarraren metafo-
ra ondo dago bihotzak altxatzeko, baina ez hainbeste
herri honi kohesio soziala emateko eta berau admi-
nistratzeko.

X. ARZALLUZ. Ea Jose Mari, epelak bota dituzu nire
aurka. Irujok eskutitz hura idatzi zuenean, 1932an,
Nafarroako senatari zen, eta 1977an ere.

J. M. ESPARZA. 1977an esan zuen, 82 urtetan.

X. ARZALLUZ. Burua oso-osorik zuela. Kontrakoa
iruditu arren, EAJk bere burua puskatu zuen
Nafarroaren gaian. Kontua ez zen bakarrik denok
elkartzea, gure ideia hau zen: “Nafarroa euskal estatu-
tuan sartzeko ondo, baina behartu gabe”. Espainiako
militarren esanetan “Nafarroak, bere aberastasuna eta
kokapena medio, Baskongadei estatu dimentsioa
emango zion”. Definizio militarra da. Orduan ez
genuen besterik egitea posible ikusi. Baina ez genuen
ezer inposatu nahi ere, ez orduan ez orain. Ematen du
Nafarroa nahi duzuela berez sartu proiektu berean, eta
beste batzuen gehiengo politikoa baliatuz. Guk
Nafarroan lan egin beharra ikusi genuen, eta egia esan
porrot egin genuen, baina bai ezker abertzaleak eta
bai ETAK ere Martxa Berde harekin [Askatasunaren
Ibilaldia]. Nafarroak ez zuen hura behar. Jendea izutu
zen eta UCD eta PSOE gu baino indartsuago atera
ziren hauteskundeetan. Nafarroak nortasuna zeukan
nahi zuena izateko, baina nafar gizarteak ez zuen nahi
Euskadiko esperpento nazionalista.

■ TXEMA MONTERO



Herri Batasuneko eurodiputatu ohia

Deustun (Bizkaia) jaio zen 1954an, baina mungiarra da iza-
teaz. Herri Batasuneko eurodiputatu ohia da. Abokatua da
lanbidez. Abertzaletzat du bere burua, sozialdemokrata eta
europazalea. Inoiz baino beharrezkoago ikusten du euskal-
dunon autogobernuko instituzioak indartzea. Kezkatuta
dago euskal nazionalismoaren espresio politiko elektoral
indarra galtzen ari delako. Nazionalismo zibikoa sustatzeko
behar gorria dago, bere berbetan.

J. M. ESPARZA. Ez nago ados. Garai hartan Araba ez zen Nafarroa baino abertzaleagoa. 30 urte atzera begira ari gara: espainiar militarrentzako oinarrizkoa zena ez al zen guretzat? Horregatik ez genuen amore eman behar. Eskuina zatituta zegoen gai honekin, PSOE, epelki ere, alde zegoen, eskuineko batzuek mitinak ikurriñarekin ematen zituzten. Kontua hau da: bi instituzioak indarrean jarrita, burgesien interesak eta klientelismoak sortzen dira bi proiektuen inguruan eta egoera politiko arrunt desberdinerara iritsi gara. Orduko zatiketak egungo erradikalatasuna ekarri du. PSOEk zatiketa garaian Euskal Herriaren existentzia aipatzen zuen bere estatutuetan. Hogeita hamar urteko egoera zailaren ondoren Euskal Herria kontzeptua desagerrarazi da PSNren baitatik. Zer nahi gisaz, Nafarroako talde politiko, intelektual eta artistikoek Euskal Herria bere sentitu dute betidanik. Orain mutur batera iristen ari dira, mutur genozidara, izena ere ukatuz.

T. MONTERO. Politika ekimen dinamikoa da, ez dago hasierako argazki finkoa betiko. Nafar eskuinaren harremana, adikorra izatetik etsaitua izatera pasa da. Zergatik? Zergatik zatitu zen Hegoaldean PSOE, Nafarroan baskismoa begi-bistakoa zenean? Zergatik pasa zen autodeterminazioa hitza erabiltzetik Nafarroa erabiltzera? Ez da bakarrik bere hautesleriari eusten diola, handitzen joan da. Gertaeren dinamika ondo begiratu behar dugu. Noski, nork bere prisma-tik begiratzen badu, gureak egin du. Begirada finkoak ez digu Nafarroan gertatua ondo erakusten. Xabierrek Jose Mariri erantzun dio Martxa Berdeak kontrako erreakzioak eragin zituela, ETAko atentuek eragindakoak barne. Nire hitzak, guztiak behintzat, ez doaz ezker abertzalearen aurka. Jose Mari da euskal nazionalismora heldu den bestelako ekarpen bat, langileriatik nazionalismora etorritakoa. Abertzaletasunera iritsi zen langile multzo hura egun errepikaezina da, langileria bestelakoa baita. Nafarroa egoera larrian dago abertzaleontzat, baina, Miguel Sanzi entzun ondoren, gera dadin dagoenean, eskatzen ari dena ikaragarria delako. Sanz irrazionaltasun horretan sartzea ez da seinale txarra, arerioak horrelakoetan erortzen direnean...

X. ARZALLUZ. Arabako egoera aipatu du Jose Marik. Guk uste genuen errazagoa zela Nafarroa gureganatzea Araba baino. Araba basamortu ideolo-

“**M**adrilen gehiago sinesten dute Euskal Herriaren eta Kataluniaren independentzian, katalanek eta euskaldunok baino. ‘Abertzaletasuna krisian dagoela’ idatzi diguzu. Nik, hasteko, gaia European kokatu dut, baita hauxe esan ere: abertzaletasuna ez dago krisian, abertzaleok baizik”

XABIER ARZALLUZ

gikoan zegoen. Aizu, batzuek estatutu bateratuaren kontra egin zuten. Baina Araba EAEko parte izan zen aurreko garaian, eta EAJko kide batzuek oso ondo lan egin zuten bertan. Nafarroan, aldiz, oso gaizki jokatu genuen. Hasteko EAJk. Eta erantzulea Garai-koetxea izan zen. Eta HBk ere gaizki jokatu zuen, konkistara jo baitzuen. Nafarroa erakartzea zen kontua, ez konkistatzea.

T. MONTERO. Nik Nafarroako HBren alde egingo dut une batez: Nafarroako ezker abertzaleak ondo jokatu zuen, EAEko ezker abertzaleak agian ez. HB indartsu jalgi zen Nafarroan. Tafallan espresio indartsua izan zen: Mauricio Olite, Jose Mari bera... Edo Angel Garcia de Dios Lesakako laminazioetakoa. Ezker abertzale hura benetakoa zen, abertzalea eta ezkerrekoa. Ez nirea, unibertsitateko ezker hura, dinamika gabekoa. Ezker abertzalea dinamika zehatz baten ondorioa izan zen eta instituzioetan sartu zen Nafarroan. EAJk ez zuen ezker abertzalearen ezagutza maila Nafarroan.

Behin HBtik at geratu ostean, EAJren esferan, Sabino Arana Fundazioan, ohartu naiz EAJrentzat Nafarroako auzia ez dela eroso. Ez dakite nola landu. Ados nago “Nafarroa ezberdina da eta errespetatu behar dugu” esatearekin, baina gaiari beste dinamika bat eman behar zaio. Nire formazio sentimentala ezker abertzalean gauzatu zenez, Nafarroa nire ikuspegi politiko arruntean dago, eta hori EAJn

“**D**emokrazian omen gaude. Eta jendearengana iristeko bitartekoak norenak dira? Aztertu al duzue Nafarroan hedabideen banaketa azken 30 urteetan? Hartu irratia eta telebistaren mandoa –baita EAEn ere– eta hasi bilatzen. Emisoreen %95 konstituzionalisten aldekoa da. Hori ez da demokrazia”

JOSE MARI ESPARZA

ez da gertatzen, Nafarroa alderdi arazoa da, akats serioa. Ez ditu militanteak edo koadroak hezi eta antolatu Euskal Herriaren osotasunean. Eta berriz diot –Xabierrekin ados nago–, nafarrek erakunde komunetan gurekin bat egiteko asmorik ez duten bitartean, errespetatu behar da.

X. ARZALLUZ. EAJ federala da bere barne egituretan. Garai hartan NBBk inposatu zuen bere legea. Adibidez, alderdiaren misioa dirua ematea zen, diru asko gure posibilitaterako, eta Nafarroak ezein herrialdek baino diru gehiago jaso zuen, eurek kudeatu zutena beren kasa. Nafarroako EAJk erabakia hartu zuen Nafarroan ez aurkezta EAJ bezala. Beste batzuekin elkartu zen. Erantzukizuna beraiena izan zen, Garaiko-etea buru zela.

Azken hogeitun urteotan trantsizio berri baten beharra aipatu da. Artean, Aljerreko elkarriketak, Lizarra-Garaziko Akordioa, Loiolako elkarriketak izan dira. Zein da zuen balorazioa?

X. ARZALLUZ. Ez dago erantzun errazik, gertaerak horren konplexuak direnean. Nik egoera horiek bizi izan ditut modu desberdinetan. Porrot egin zuten. Ikaspena: bilatu dezagun bide komuna, baina ez denok elkarrekin joateko. ETaren pistola dagoen bitartean ez dago zereginik. ETak deitzen duen

borroka armatua politikaren erabakietan sartzen den unetik ez dago zer eginik. Eta berriz diot, ni ez naiz ETAKoa baina ez bestetako ere. Lizarra-Garazin guk paktatu genuen ETarekin, Aznarrek berak ez zuelako paktatu nahi. Oso luze litzateke hori guztia azaltzea. Nire ibilbide politikoan ez dut ezagutu orduan izan zen ilusioa. Abertzaleen artean izan zen konkordia izugarria pikutara joan zen. Denok ados gaude batu behar dugula, baina politikan, aurrera egiteko, botoa beharrezkoa da. Abertzaletasunak gehiengo osoaren onespenez garatu eta eboluzionatu behar du.

Alderdien Legeak oztopatzen du hori orain.

X. ARZALLUZ. Noski. Abertzaleek Eusko Legebiltzarran gehiengo osatu dezaketela eta autodeterminazio eskubidea aurrera eraman dezaketela ohartu dira Madrilen. Hori da PSOEkin eta PPK elkarrekin gobernatzearen arrazoia, ez dago besterik.

T. MONTERO. Nire esperientzia zuzena Aljerreko elkarriketakoa da, Lizarra-Garazikoez eta Loiolakoez entzutez baino ez dakit. Zer da eskas? ETA ez da fidatzen, ez Euskal Herriaz ez ezker abertzaleaz. ETaren ustea hau da: “Euskal Herriak ez badu borroka armatuaren akuilua, herritarrok amorfo bilakatu eta sakabanatuta aritzen gara. EAJk erregionalismora jotzen du, poltronen bila. Ezker abertzalean ez du konfiantzarik, uste baitu bera gabe ez direla gauza etekin politikorik ateratzeko”. Konfiantza ezak arazoa areago korapilatzen du. Gogoan dut Aljerrekoaren garaian EAJk egin zuen manifestazioa. EAJk ez zuen alboan geratu nahi. Nola geratuko zen EAJ auziaren konpontzearen parte izan gabe. ETak ez badio konfiantzarik ematen, EAJk Espainiako Gobernuaren hegalpean bere aliatua bilatzea normala da.

Lizarra-Garaziko Akordioa irailean sinatu zen. Bada ekainean ETAKo hamar presok sinatu zuten komunikatuak “Su-eten eta negoziazioa ja” zioen. ETAK sinatzaileak kanporatuak zituen ordurako eta ni kezkatu nintzen. Sinatzaileak ez ziren edonolakoak. Nire konklusioa hau da: “ETAK militanteak kanporatu ditu. Prozesua ez bada ateratzen bere interesen arabera, lehengoetara itzuliko da, eta militante hauek ezin esango dute ezer esan ETAK aurrerantzean egingo duenari buruz”. Alegia, ETA negoziatzen hasten da eta traba izan daitezkeen militanteak kanporatzen

“Euskal Herriak Estatu independentea izateko aukera gutxi du, ez bada euskaldunon gehiengoak argi eta garbi adierazten duelako. Gure herriaren bilakaera politikoaren determinazioan biolentziaren fenomeno gakoa da, biolentziak gure bilakaera oztopatzen du”

TXEMA MONTERO

ditu badaezpada. Lizarran [azalpenaren laburpena da haur] Joseba Egibarrek, sinatzeko unean, horretaz galdetu zuen. Ezker abertzaleko ordezkariak esan omen zion: “Horiek erakundearen kontuak dira, baina ez du honetan eragiten”. Ez zitzaidan batere gustatu. Ezker abertzaleak horrela jokatu du beti, baina erreallitateak besterik erakutsi digu. Loiolako saioa etorri zen: “Laster pikutara joango da” pentsatu nuen. Ez zen askoren gustukoa prentsan idatzi nuena. Auzian laguntzen zuten nazioarteko eragileetako batek esan zidan: “ETArekin lehen erraza zen kontaktatzea, baina orain sakabanatuta daude. Deitzen dugu eta erantzunik ez, edo deitu bihar” esaten digute. ETAk dauka giltza. Berak nahi duenean itzaltzen du lanpara, eta “partidarik ez” dio. Bien bitartean, negoziazioa desbalorizatzen joan da, xahutuz.

J. M. ESPARZA. Abertzale batzuen artean joera errepikakorra hau dago: “ETA da gaixotasunaren eragile nagusia”. Betiko leloa. Espainolei arrazoia ematen diete “arazoa ETA da” esanda. Ez, inola ere ez. ETA ondorioa da, eta hori gutxi aztertzen da. Azken hogeita hamar urteetan EAJk autonomia kudeatzen eta administratzen jardun du, joko arauak oso ondo betez eta errespetatuz. Baina joko arau horiek “bal-dintzak eta mugak” ezarri dituzte. Madrilekiko ez da enfrentamendu dialektikoetatik pasa. Xabierrek



horietan parte hartu izan du. Estatutismo abertzalearen ikur inportateena Ibarretxe Plana izan da. Hara, ikusi dugu nola hartu duten espainolek: mespretxuz. Ibarretxe umiliatu eta eserarazi dute gaizkileen aulkian. Eta EAJk Konstituzioaren mugen barruan jokatzen segitzea erabaki du. Eta larriago dena, EAJk espainiar faxismoari demokraziaren labela eman dio. Ezker abertzalea ez omen da demokrata. EAJk espainolen okupazio basaz ez du behar bezala salatzen: tortura, lokalen itxiera, egunkarien itxiera, kartzelako egoera, Parot Legea, Alderdien Legea. Espainolen bortxakeria askoz handiago da ETAk eragiten duena baino. Eta jo eta su ari dira ezker abertzalearen aurka, bera bailitza bortxakeriaren eragile nagusia. Erne, ETAk bere jarduna utziko duen egunean ikusiko dugu espainolen menperakuntzak nola jarraituko duen. ETAk euren bortxa elikatzen duela esan ohi da. Baliteke. Irtenbidea bilatu beharko zaio honi. Artean “hauekin ezin da deus egin” delakoak ez du batere laguntzen arazoa konpontzen.

Ezker abertzalearena opresioaren aurkako erresistentzia epikoa izan da eta hori historiak onartuko du egunen batean. Orain demokratikoki gehiengoak kontra dagoela? Nafar gehiengoak Euskal Herriaren kontra daudela? Zer demokraziaz ari gara? Eta jendearengana iristeko bitartekoak norenak dira? Aztertu al duzue Nafarroan hedabideen banaketa



Gure hiru solaskideak Azkoitia, Tafalla, eta Mungiako semeak dira. Lurralde, ideologia eta esparru politiko desberdinetan aritutakoak. Hirurek alabaina, aspaldidanik elkarren berri dutela agertu zuten mahai-inguruan.

azken hogeita hamar urteetan? Hartu irrtiaren eta telebistaren mandoa –baita EAEn ere– eta hasi bilatzen. Emisore eta kateen %95 konstituzionalisten aldekoa da. Hori ez da demokrazia. Eta EAJren jarrerak, besteak beste, justifikatzen dute sasi-demokrazia hori. Espainolek demokraten izena bere egin dute, eta demokraziaren izenean, nahi dutena egiten dute. Horra tranpa! Zuek onartua, EAJk. Nik ulertzen dut arrazoi politikoak tarteko “ETAren aurka nago” esatea. Baina ezin dut onartu “arrazoi etikoa” erabiltzea, eta aldi berean Estatuaren eguneroko biolentzia ikaragarriaren aurrean isilik egotea edo deus ez egitea. ETAk gauza guztien errua duela esatea gezurra da, eta okerrago, iraganeko leloa da. Estatuaren estrategiaren betiko leloa. Eta iraganera begiratu ordez, aurrera begira dezagun. Mintzo gaituzen aurrerantzean egin beharraz.

Esan zuk zeuk, zer egin behar den.

J. M. ESPARZA. EAJk beldur izugarria izan du negoziazio prozesuetan. Batetik, ezker abertzaleak su-eten garaian gora egiten duelako hauteskudentan, eta bestetik “mitxelinen” pisua izugarria delako alderdian. Ezker abertzalea kritikatu dezaket, baina lehenengo eta behin, berea borroka berekoikeriarik gabekoa dela adierazi nahi dut. Europan ez da

“**E**AJ Euskal Estatuaren eratzeko jaio zen, eta estatu bat ezin da sortu independentistarik gabe, ez dakit independentistek sortuko ote duten, baina berauek gabe ez. Badago argitzeko gauza asko. EAJko Batzar Nazionalari galdera hau egingo nioke: independentistak zarete, bai ala ez?”

XABIER ARZALLUZ

honen antzeko fenomeno soziopolitikorik. Hori esanda: ezker abertzalearen arazoa da, batzuetan hain murgilduta dago bere borrokan, ez dela oharitzen noiz ari den irabazten. Aurreko bi prozesuetan, nire ustez irabazten ari zen, eta agian ez zen ohartu eta prezipitatu zen. Behar baino lehenago altxatu zen mahaitik. Negoziazioa eboluzionatzen utzi behar da, testuak dioenak ez du hainbeste balio, ezta bermeak exijitzea ere, Errege Katolikoez geroztik espainiarrak gezurraren paradigma direlako. Kontua ez da testuak dioena, abiapuntuak noraino eramane zaitzakeen baizik. Gatazka luzatzea ez da ona, indar korrelazioak –herriak nahi duen arabera– ekarriko du egoera berria.

Segi dezagun etorkizunaz mintzatzen, beraz.

X. ARZALLUZ. Bai, noski. Baina Esparzak bota dituenak entzunda, nola jardun etorkizunaz horiei erantzun gabe. “Mitxelinak” hizpide: EAJk dena irentsi behar du antza. Ni EAJko EBBko burua izan naiz luzaz, eta kondenatu behar zen guztia kondenatu dut. Zer nahi duzu, zure lerroan jartzea ez badut sinestean zuen jokabidean? Ibarretxe zergatik kendu zuten? Ituan edo iltzean jo zuelako. Ibarretxek berak ea zer politika eramane behar zen galdetu zidan. Nik esan nion Estatuaren bete behar zela gutxienez, herria egu-

neroko arazoetan gidatzeko. Berak berriz “harago joateko unea heldu da” esan zidan. Ibarretxe Plana, hitz batez, autodeterminazio eskubidea gauzatzekoa da. Madrilek ez zuen espero inolaz ere EHAKk Planari hiru boto ematea. Madrilek semaforo gorria piztu zuen ezker abertzaleak Ibarretxeren alde egin zuelako, gehiengo osoa abertzaleona dela jakitun. Biolentziaren aitzakian Alderdien Legea atera zuten. Kontuz, ikusiko dugu nola aplikatuko duten hurrengo hauteskundeetan. Gauzak ez dira hain sinpleak.

T. MONTERO. Josemariren diskurtsoa ezaguna da ezker abertzalean: “Gurea ez da ondo, baina bestee-na okerragoa da”. “Gurea ez da ondo” ñabardura egitea ez da gutxi halere. Hori urte askoan ez da existitu ere ezker abertzalean. Nik berriz diot: ETak ezker abertzaleari eta Euskal Herriari konfiantza eman behar dio, eta EAJk, prozesu elkarrizketatu berria ematen bada, homogeneitatea eta aitatasuna galtzearen arriskua asumitu behar du, Irlandan gertatu dena. Sinn Féin bilakatu da alderdi nagusia errepublikarren esparruan. EAJk, negoziazioa emango balitz, galtzaila atera daitekeela asumitu behar du. Eta ez dakit asumituta daukan. EAJ ez bada gaurkotzen, ezker abertzaleari –ETatik eta Alderdien Legaren kortxetetik askatzen den unetik– ahalmen eta kemen gehiago ikusten diot EAJri baino. Ezker abertzalea EAJ baino indartsuago dago etorkizunari begira. Bien bitartean, hilketak daude, hilak itzuli ezin dira. Batzuek torturatu egiten dituzte eta besteek hil. Estatuak hiltzen ditu zeharka, ados, presoan senideak hiltzen dira errepedeetan, baina hilak ez dira alderagarriak. Pertsona bat alebosiaz hiltzea... hiltze gezurtia da. Hilketa kenduko bagenu, hilketa arrazoi politikoengatik izatea, panorama politikoa argiago litzateke.

X. ARZALLUZ. Ni EBBko presidentea nintzela, Gorka Agirre Aljerrera bidali nahi izan nuen. Jose Luis Corcuera [barne ministroa orduan] hainbat gauza esaten zigun, baina ez genuen ezer jakiten. Ez zuten onartu. Iñaki Esnaolak “EAJk txanpa aprobetxatu nahi du” esan zuen. Ez, ez da egia. Ez genuen egon nahi. Corcuera esan zidan “lasai, dena jakingo duzue”. Nik “ez, ez esan nola konponduko duzuen, zeuek konpondu eta kito”. Nik konponketa izanez gero ezker abertzalea igoko dela badakit, noski. Baina ikusiko dugu benetako politikan zeinek eusten dion

goiari eta behekoari. Oro har, nik ez nuen negoziaketetan parte izateko asmorik izan, eta ergel baten modura bete nuen ezker abertzalearen bitartez ETak exijitzen ziguna: “EAJren zeregina bideko sastraka kentzea da negoziazioa aurrera ateratzeko ETaren eta Madrilen artean”. Horren alde egin nezakeen guztia egin dut beti. Azken aldiz Aznarrekin. Aznarrek lehen bileran esan zidan: “Gauza hauek azkenean eskuinak konponduko ditu”. Irlandakoa Thatcherrek hasi zuela eta beste... Segitu nion, baina laster konturatu nintzen Aznar beldurra janda zegoela. Aznar konturatu zen nonbait berarentzat zein arriskutsua zen negoziazioa gauzatzea. Harremana apurtu nuen eta handik gutxira Lizarra-Garazin EAJk ETArekin negoziatu zuen, paperak tarteko. Eta ez dut gehiago esango.

Eta aurrera begira zer? Euskal trantsizioa gauzatu behar da, beharbada.

X. ARZALLUZ. Hasteko, nik ez nuen uste nire alderdian independentista ez den jendea zegoenik. Eta ez dut ulertzen. EAJ Euskal Estatuaren eratzeko jaio zen, eta estatu bat ezin da sortu independentistarik gabe. Ez dakit independentistek sortuko ote duten, baina berauek gabe ez. Badago argitzeko gauza asko, jakina. Nik EAJko Batzar Nazionalako kideei galdera hau egingo nieke: independentistak zarete, bai ala ez? Euskadi maite duzue ala alderdiaren txokoa indartzea bilatzen duzue? Lehenik aitormen hori egin ezazue. Hori egindakoan alderdien arteko komunikazio gehiago eskatzen dut. Ezker abertzaleak –adar guztiak barne– ere badu zereginik. Horrek elkarrizketa asko eskatzen du, ez Loiolakoak bezala, isilik baizik. Aurrera nola, noiz eta zein baldintzatan egin daitekeen adostea lan itzela eskatzen du. Baina hori egin ez den bitartean, ez dago zer eginik.

J. M. ESPARZA. Euskal trantsizioa aspaldi gauzaten ari da, ez da gauza bera KAS Alternatiba edo Oldartzen ponentziaren garaiak eta Alternatiba Demokratikoarena edo Anoetako Proposamenarena. Ikustear dago zertan geratuko den EAJko mugimendu pendularra. Ibarretxeren etapak diskurtso orokor desberdina ekarri zuen. Madrigo monitoreak gorriz piztarazi zituen. EAk, hala edo nola, ibilbide bat egin nahi du, EAJren errapetik askatu da. Noraezean dabil, baina zerbaiten bila dabil. Jende honek hogerekoak lau



Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan egin genuen mahai-ingurua. Bideoan jaso eta sarean jarri dugu. www.argia.com/multimedia

pezetekin trukatu ditu, beraz eskertzekoa da bide berriak bilatzea. Euskal gehiengoaren sindikala –ELA buruan– prozesu oso interesgarria lantzen ari da, ELAk askoz gehiago egin dezakeen arren. Baldintzak daude aro berri batera joateko. Gakoa da gutxieneko puntu komunak lortzea: euskara, lurraldetasuna, kultura, hezkuntza, Nafarroa, Iparralde gaietan, hala etorkinen nola giza eskubideetan. Abertzaleek oso garbi izan behar ditugu horiek guztiak koiuntura politiko ezberdinen gainetik mantendu behar direla. Abertzaleek eusten badizkiote gutxieneko adostasun horiei, paisaia politikoa alda liteke.

Unea baikorra da orduan?

T. MONTERO. Ez, ez, ez. Ez nago ados. Ezker abertzalearen hiru botoak [EHAKren hiru botoak] abala izan balira, izan nintekeen ados. Baina, niretzat, sostengua benetakoa izan zitekeen baldin eta Legebiltzarrean zeuden ezker abertzaleko kide guztiak Ibarretxeren proiektuaren alde bozkatu izan balute. Beste behin ere, anbiguotasun kalkulatu gauzatu zen. Ezker abertzaleko oinarriak ez zuen sekula ulertuko Ibarretxe bederatzi botoz sostengatzea. Estatuak, berriz, EAJ eta ezker abertzalearen arteko harremana eta indar korrelazioa nola-

koa zen neurtzeko baliatu zuen aukera hori.

Dena dela, abertzaleon unea ez da oraindik heldu arrazoi baten-gatik: hemen elkarri ari gara erruak botatzen. Hau eta beste hori elkarri aurpegiratzen dizkion bitartean –egoera politikoa- ren ispilua– ez dago aurrera egiterik. Gezurtiak ez bagara –Xabier eta Jose Mari ez ditut gezurtizat jotzen inola ere–, honek eztabaida asko behar du. Horiek horrela, hurrengo gertakari politikoetan –ezker abertzaleak legetasuna berreskuratu, EAJ Ajuria Enea itzuli, eta EA bere izaera eratu ostean, nahiz Josemarik nik baino argiago ikusi EAJren errapetik deslotuko dela– abertzaleek erreakzionatu beharko dute galdu

dutena berreskuratzeko. Honek, Xabierrek dioenez, indar politikoei lan asko eskatuko die, baita erruduntasuna uxatzea ere. Introspektibarako garaia da, bakoitzak bere baitara begiratzekoa. Euskaldunon kasua ez da israeldarrena. Aldeak alde, hango bi partek moldatu ziren.

Ni “busti” egingo naiz. Nik Euskal Estatu sortzeko gero eta behar gutxiago ikusten dut, eta behar gehiago aldiz euskal komunitatea edo subjektua sortzeko, komunitate indartsua Europar Batasunean Espainia eta Frantziarekin hitz egin ahal izateko. Batzuetan, Euskal Estatuaren aldarrikapenak subjektu politiko horren gauzapena oztopatzen du. Bat: EAJrena da Euskadik eman duen ideia politiko interesgarriena, Sabino Aranak “Euskaldunon aberria Euskadi da” esateak ukitu zigun bihotza. Baina inportanteena da EAJ sortu izana. Ezker abertzaleak eta ELAk beren izaeraren arabera EAJ nahi dute. Eta oker daude. Bi: Ez dakigu EAJk zer nahi duen, eta niri gustatuko litzaidake, orain Jaurilaritzatik kanpo dagoenez gero, gogoeta prozesu sakona egitea nahi duena argitzeko. Egiteko gauza bada denon onerako izango da.

J. M. ESPARZA. Ondo da. Bakoitzak zer nahi duen argitu behar du. Esaterako, ea EAJk Espainian toki eroso nahi duen, edo beste batzuk iritsi garen iristen

“**M**enperatuak garenean
ere gure arerioak
baino hobeto
bizitzeko gauza gara, hori da gure
kontraesana. Ez gara kaiola batean
ondo elikatutako eperrak izateko jaio
ordea, kaiola hautsi behar dugu, eta
horretarako jarrera militanteari eutsi
behar zaio”

JOSE MARI ESPARZA

den, eta da: ezin gara lotuta egon, askatasun eskasez ez baitira sortzen behar ditugun indarrak. Nik EAJri ez diot eskatzen gure antzekoak izatea. Ezker abertzaleari berari ez diot-eta eskatzen nik nahiko nukeen bezala izatea. EAJk ez badu argitzen zein den bere rol historikoa, Karlismoari bezala gertatuko zaio. Karlismoak Zumalakarregiren epikaz 100 urtez iraun zuen. Ez dadila EAJ bizi 1936ko gudarien epikaz besteak beste. Herri hau ez bada ilusionatzen askatasun nazionalaren dinamikan eta helburuetan, bereak egin du. Herri honek instituzioetako bitartekoez gainera (udalak, aldundiak, parlamentuak), konbikzioa behar du. EAJk nahiz ezker abertzaleak barneratu behar dute herri bat erditzeak ahalegin handia eskatzen duela. Lau urtean behin bozka emanez, Alderdi Eguna, Nafarroaren Eguna edo Aberri Egunera joanez, edota euskara pixka bat ikasiz eta egunkaria irakurtzen herria salbatu dela pentsatzea faltsua da. EAJk dinamika horretan sartu du herria. Askapen nazionalaren ildoan aritzeak konpromiso handiagoa eskatzen du. Ni egoera demokratiko burges batez ari naiz, eszenatoki konpondu batean banengo bezala mintzatzaren ari naiz, biolentzia guztiak gelditu ondoren herri honek bere etorkizuna erabakitzeko aukera izanen duen uneaz.

Gutxieneko akordioa behar da euskaldunon artean, baina ahaztu gabe, Espainiako eta Frantziako legearekin beti tentsioan aritu beharko dugula, muga

edo langa koska bat gora eramateko. Erresistentzia zibilaren plusa behar da, bokazio instituzionalak hainbat ekimen babesteko balio behar du, baita instituzio paraleloak ere European aritzeko, eta ez Madriler horrenbeste begiratzeko. Eta noizbehinka gure ordezkari bat tribunaletara eramaten badute, gure eskubideen alde sendo aritu delako seinale izanen da. Ezin dena da Legebiltzarrean akordio erabakiorra hartu Ibarretxe Planaz, eta bera ondoren kokilarazi. Hori ez da demokratikoa, hori ez da konpontzen lau urtean behin botoa ematearekin bakar-bakarrak.

X. ARZALLUZ. Ni baikorra naiz. Baina bidea denbora jakin eta seguru baten barnean egin behar da. Herri honek norbait garenaren birusa dauka, eta ernatuko da, horren aurka ez dago txertorik. Euskadi egunen batean independentea izango da, traba guztiengainetik, formula batez edo bestez, eta hori ez du geldiaraziko ez Alderdien Legeak ez beste ezerk. Irlandako eta Israelgo gatazkan bezala –beste neurri batean– gutxiago hitz egin dezagun iraganaz eta mintza gaitezen etorkizunaz. Aski da bata besteari elkarri harrika jarduteaz, defini gaitezen behingoz, guztiok baina.

EAJk nondik nora jo behar du, zure ustez?

X. ARZALLUZ. EAJren ponentziak eginak daude. Gaur agintzen duten askok ez dute ponentzien arabera pentsatzen, ez zutelako parte hartu. Orduan ez zen zuzenketarik jarri. Beharbada, ni nengoelako. Ez zutela zer eginik pentsatuko zuten nonbait. Galdeetzen didazu EAJk nondik joan behar duen: ponentziak begira ditzatela. Noski, nik nire zalantzak ditut: ez dakit Bizkaiko taldeak, besteak beste, horrela pentsatzen duen edo ez. Nik independentistatzat nituen batzuei entzuten diet: “Ei, nik ez ditut 18 urte independentziaz hitz egiteko”. Beraz, alderdiaren batzarrak hitz egin dezaten eskatzen dut. Jakin dezagun nor den nor. Zertarako hitz egin independentziaz autonomian pentsatzen ari bada. Autonomia defendatzea ondo dago, baina definitu dezagun helburua.

T. MONTERO. Jose Marik esan duenaren harian: nik ez dut Zumalakarregiren eta 1936ko gudarien jarraipena nahi. Gizartean normaltasuna behar dugu, eta bistan da, herri honek Aberri Eguna eta Alderdi

Eguna, euskara ikasi eta egunkaria irakurri baino gehiago egiten du. Egunerok altxatzen da lanera joateko eta konpromisoa hartzen du ahalegin kolektibo batean. Enpresariak eta langileak komunitate batekin konprometituta daude. Ea ulertzen dugun herriaren oinarria hori dela, hori dela politikari ekiteko oinarria, zeren eta bestela ez gara politikaz ari. Horretaz euskal nazionalismoak ez du aski gogoetatu, eta egin badu batzuetan bale eta bestetan kale aritu da. Nik espero dut Europako Tribunalak justizia egitea eta normaltasuna ezartzea, ezker abertzalea berandu baino lehen instituzioetara itzultzea, eta marko honen barruan bere proposamenak entzutea gehiengoaren bila joateko. Ez dezala inork espero Espainiako Estatuan Errusian edo Jugoslavian izan ziren antzeko eraispenik. Epikoarenak berea eman du, eguneroko lanak agertu behar du nolakoa den euskaldunon izaera. Espainiako Estatuak industria Madrilen kokatu du, aspaldiko mendeetan ez bezala. Horrek eragiten digu, baita kataluniarrei ere. Horiek dira gure erronkak eta nazionalismoak zerbait esan behar du, bestela, gizarteak dabilen uhinetik at ibiliko da.

Espazak hedabideen rola aipatu du arestian.

T. MONTERO. European erkidego bakarra ezagutzen dut EAeren antzekoa: Moldavia. Hedabideen ehuneko 95ak Gobernuak sostengatzen du. Patxi Lopezen Jaurlaritzak ere prentsa idatziaren %95a kontrolatzen du; irratia eta telebista barne.

X. ARZALLUZ. Ba bai, egia da. *Berria*, *ARGLA*, *Deia* edo *Gara* kenduta... *Diario de Noticias* azken urteetan.

T. MONTERO. Nola iritsi gara egoera honetara? Baikorki pentsatuz, *El Correoko* editorialista banintz zapuztua egongo nintzateke, botoetan ez baita gauzatzen berak idazten duena. Baina euri xeheak blaitu egiten du, eta ari da emeki-emeki. *ARGLA* eta *Berria*, eta beste neurri batean *Egin* eta *Gara* kenduta, ez gara prentsa interesgarria egiteko gauza izan.

X. ARZALLUZ. Interesgarria eta salduko dena.

T. MONTERO. Nik eztabaida identitarioan sinesten dut. Nortasuna inportantea da zertan errekonozitzen garen argitzeko, hau klabea da komunitate

“Jose Mariren diskurtsoa ezaguna da ezker abertzalean: ‘Gurea ez da ondo, baina besteena okerragoa da’.

‘Gurea ez da ondo’ ñabardura egitea ez da gutxi halere. Hori urte askoan ez da existitu ere ezker abertzalean”

TXEMA MONTERO

guztietan: identitateek lotura zuzena dute gertakariekin. Hedabideen arazoa ez da taktikoa, gure historiaren narrazioa eraikitzen joan behar dugu. Gogoetatzeko puntua da hau. *Berria* da egunkari nazional bakarra, ez euskaraz delako soilik. Badakit laguntza instituzionalik gabe ez duela kaleratzerik, mugak dituela. Nora goazen argitzeko ezinbestekoa da hedabideen muntaz eztabaidatzea.

X. ARZALLUZ. Internet ere hor dago, funtsezkoa. Talde indartsuak bagenitu; horiek behar ditugu.

J. M. ESPARZA. Ados... Baina ez guztiz. Jakina, herria egiten da hedabideak egiten eta instituzioetan parte hartzen, familiak eta hauen seme-alabak ikastolan sartzen. Baina espainolek horri neurria hartu diote, sistemak gizarte erosoak, pasota eta kontsumista nahi du. Gora joan nahi duen nazionalismoak horiek ditu etsai. Guk herritarrak ilusionatu behar ditugu. Hedabideen, zinemaren eta memoria historikoaren bidez independentistak izateko gogoak sortu behar dugu gazteengan, epika txertatu. Sabino Aranek zioenez, aberria ez da kalakan defendatzen soilik, ekin-tzarik gabe. Horretaz gainera ausardia behar da. Ausardia azpimarratzen dut, ezin baitugu gazteria hezi soilik ondo bizitze nahian, ondo bizi eta kaiola batean egoteko. Bistan da, Espainiako kaiolan gu eper lodienak izango gara. Herri honek frankismoan aberastasuna sortzeko ahalmen izugarria izan zuen. Menperatuak garenean ere gure arerioak baino hobeto bizitzeko gauza gara, hori da gure kontraesana. Ez

gara kaiola batean ondo elikatutako eperrak izateko jaio ordea, kaiola hautsi behar dugu, eta horretarako jarrera militanteari eutsi behar zaio. Hori da herri hau tenkatzeko modua. Bestelakoan, ETA gelditzean, presoak kalean, “normalizazioa” izanen den egunean azukre koskorra uretan bezala urtuko gara.

T. MONTERO. Abertzaleoi instituzioetan neurri gogorak jartzen ahal dizkigutela ikusi dugunean tenkatu gara, areago, Madrilek dinamika ekonomikoak beste leku batzuetara eraman ditzakeela ohartzean. Azken mendeko egoera ekonomikoak ez digu beste 100 urteko egoera hobeagoa bermatzen. Herri honen burujabetasuna lortzeko pultsioa eta tenkadura beharrezkoak dira, baina horretarako lanabes berriak landu behar ditugu. Hori herria egitea da, eta epikoa.

J. M. ESPARZA. Noski, ez dut ukatzen.

T. MONTERO. Noski, baina ez dakit hori nahiko transmitu ote dugun belaunaldi berrien artean. Ezagutzen ote dute belaunaldi berriek iragana? Gure ondareari eustea funtsezkoa da. Nazionalismo zibikoz eztabaidatu behar dugu. Katastrofe handien garaia pasa da matxinatzeke, bide berriak urratu beharra dago.

Zer eman dezake Europak zeregin horretan?

X. ARZALLUZ. Europa izan daiteke irtenbide bat, baina eman, ez digu ezer emango. Espainolak Milosevic bezala etorriko balira, orduan...

Konstituzioaren bigarren artikulua indarrez jarriko lukete eta tankeak kalera.

X. ARZALLUZ. Espainiar jeneral batek eta biok elkarri idazten diogu tarteka. Bere ustez demokrata da, baina fatxa da guztiz. Euskalduntzat du bere burua, baina *espainolazoa* da, beldurgarria. Ibarretxe erabakitzeke eskubidearekin hasi eta idatzi zidan: “Hori traizioa da. Ikusiko dugu Ibarretxek zer esaten duen tankeak Ajouria Enean sartzen direnean”. Izan ere, erabakitzeke eskubidea independentziarako bidea da. “Zer uste duzu, tankeak datozenean gu fusilekin joango garela aurre egitera? Gu geldian itxarongo dugu. Ibarretxe kendu eta Luesma bere lekuan jarriko duzue. Legebiltzarra desegingo duzue, eta zer gehiago?” erantzun nion jeneralari.

Baina ez zen gertatu. Hori gertatu izanak lagunduko al zion herri honi?

X. ARZALLUZ. Ez dakit. Agian, gertatu izan balitz hobe. Ez dut esaten, gu erresistentzian sartuko ginelako, Europak ez zuelako onartuko baizik. Nola ulertu hauteskunderik gabeko demokraziarik European?

J. M. ESPARZA. EAJ demokrazia-kristauaren sortzailletako bat izan zen, baina iraganean oihartzun handiagoa izan zuen. Azken urteetan EAJri kemena eta ausardia gehiago falta izan zaio nazioarteko harremanetan. EAJk begiratu dio Europari, baina epel eta Madrildo boterea molestatu gabe. Ezker abertzaleak bizkarra eman dio Europari urte luzetan. Urrutiko ereduie begira egon da. Gure tradizio internazionalista ahaztu gabe, European politika egin behar dugu. Euskaldunok europarrak gara, zamarra daramagu eta ez guayabera. Egunen batean abertzaleok Euskal Herria zutik jartzen badugu European, guk uste baino aliatu gehiago izanen dugu.

T. MONTERO. Nik euskaldunok gure komunitatearekin eta demokraziarekin konprometitu behar dugula esan dut, baina, kontzientea naiz ere espainol klase politikoak eta klase intelektualak benetako konpromisoa hartu behar dutela demokraziarekin. Espainian gehienak ez dira konstituzionalistak, gehienak euskal eta katalan antinazionalistak dira. Halere, oso gaizki litzateke hori horrela delako beste biderik ez urratzea. Gure arrakastaren baldintzetako bat espainol agintarien eta intelektualen konpromiso demokratikoa lortzea da. Espainian demokraziarekiko duten konpromisoa argi dezaten nahi dut. Onartu eta asumitu behar dute gu herri desberdina garela. Baditugu proposamenak, baina ezberdinak dira, oraindik ez gara gutxieneko komun batera iritsi. Galdera da, nola gauzatzen dugu abertzaleok elkarrizketa beste aldean demokraziarekiko konpromiso eskasa denean? Asunto hau interesatzen zait. Guk ere badugu erru partea. Ez dugu garena eta nahi duguna argi eta garbi azaltzen. Euskal Estatuaren alde al gaude? Ni “ez”. Anbigutasun kalkulatuarekin bukatu behar da, garai batean etekin bat emango zuen, baina uneon ez. Argitu dezagun zein den, abertzaleon gutxieneko akordioa. Hortxe datza gure indarra. Datozen urteetan ez bagara hori argitzeko gauza, larri ibiliko gara. Badugu zer ikasia eta zer egina. ■

Nazio bat, gatazka ugari



JUDIT FERNANDEZ

Eider Alkorta *

“Loiolako konbertsazioen ondotik eta hauteskunde autonomikoen atarian Urkulluk pintzaren teoria plazaratu zuen, eta abertzaletasunaren hegemoniarako borroka egon badenaren ustea zabaldu zuen”

Gaur egun euskal abertzaletasunak bizi duen egoeraren diagnostika gure kokapen ideologikoaren arabera izanen da seguruenik. Atzera begiratu beharko da abertzaletasunak bizi duen impasse egoeraren zergatiak edo gakoak aurkitzeko. Frankismotik eratorritako trantsizioa bizi izan ez genuenok, azken hamarkadan beste trantsizio baten beharrezkotasunaz entzun ditugu hainbat eragile sozial eta politiko. Ez dakit trantsizio prozesuak izan diren Lizarra-Garazitik Loiolaraino egindako prozesu eta negoziazio saiakerak, dena den bake eta normalizazio politiko baterako lehen urratsak eman zirela esan genezake. Baina nola eta non geratu da aberria edo nazio eraikuntza ibilbide honen ondoren? Lizarra-Garazi aurretik baino hobeto edo okerrago dago aberriagintza?

1998an sinatu zen Lizarra-Garaziko akordioa. Subiranotasunaren lorpen garrantzitsu bat bezala ikusi zen eta gatazka politikoaren bukaera eta etorkizun komun baten aldeko hautua egin zela zirudien. Ordurarte abertzaletasuna haustura eta erreformaren aldekoen artean banandua zegoen eta batasun irudi bat zabaldu zen lau-haizetara.

Kolore anitzeko argazki horrek barnean konfiantza eta flexibilitate eza zuela diote batzuek. Kontuak kontu, urte eta erdirako, hainbeste ilusio sortu zituen akordioak berea egin zuen, ETAk su-etena hautsi zuen eta berriro abertzaletasun zatikatu baten eszenatokia ikusi genuen, aurretik bazena baina Lizarra-Garazi ondoren areagotua. Abertzaletasuna nagusi den herrietan nazionalismo instituzionalista (EAJ batik bat) eta Ezker Abertzalearen arteko talka ez zen fenomeno berria, baina Lizarra ondorenean enfrentamendu hau panorama nazionalera, erkidegora (EAEra) behinik behin, pasa zen. Arlo batzuetan aliatu izan zitekeena etsai bilakatu zen. Kaltetuen artean aberriagintza, artzain asko denean ardiak gose izaten omen dira.

Jokaleku berriak aktoreek euren apustuak birmoldatu eta egokitu behar zituzten eta EAJk autonomismo paktista baten aldeko bidea erakutsi zuen. Bitartean Ezker Abertzaleak subiranotasunaren aldeko ikurra bereganatu zuen. Etsaia ez zen jadanik Madril, etsaia etxean aurkitu zen eta sukaldean errezeta berriak lantzen hasi ziren. Lizarra-Garaziko polo subiranistatik EAJren ezkerrean kokatuko

“Estaturik gabeko nazioek, barne desadostasunetatik haratago, nolabaiteko batasun bat mantendu izan ohi dute Estatua duen edo duten nazioen aurrean, gurean ordea, egoera bestelakoa da. Borroka parametroak aldatu direla dirudi abertzaletasunean, bi zutabe nagusien arteko ikusezinak bere horretan dirau eta Kataluniako formula imitatzeko tentazioa izanen da. Dudaren onura eman ahal diogu”

litzatekeen ezkerreko polo subiranistara eta pintzaren teoriara. Abertzaletasunaren balizko batasunetik barneko hegemonia borrokara.

Lizarra-Garazitik Loiolara pasa gara, alderdi abertzale ezberdinen estrategia bateratu batetik, Ezker Abertzalea eta PSEren arteko bilkuretara. Estrategia paktistak nori mesede egiten dion asko eztabaidatua izan da. EAJk beti izan du horretarako abilezia Madrilekin eta alderdi interesak defendatzea egotzi zaio. Loiolako konbertsazioek ere bide beretsua izan dute, Espainiako Gobernua ETArekin eta Ezker Abertzalea PSErekin. Lehen itxura batean konbertsazio hauek eten dira eta argitara eman direnean errudun gisa EAJ aurkeztu dute. Gauzak okertu aurretik jeltzaleei deitu izanez gero gauzak bestelakoak izango lirakeela uste dute batzuek. Beste batzuek diote EAJk PSErekin bat egiteak bere benetako izaera, berriro ere, agerian



Kataluniako Genelaritateko Jauregia.

utzi zuela. Loiolako konbertsazioen ondotik eta hauteskunde autonomikoen atarian Urkulluk pintzaren teoria plazaratu zuen, eta abertzaletasunaren hegemoniarako borroka egon badenaren ustea zabaldu zuen. EAJk, gobernutik, eta bitartean, abertzaletasunaren lidergo horretatik baztertu nahi izana egotzi zion Ezker Abertzaleari, eta alderdi sozialistarekin akordio tazito bat izatea leporatu zion.

Interpretazioak interpretazio, Lizarra-Garaziko akordioa eta elkarlana hautsiak daude eta Loiolako konbertsazioak eten direla esan digute. Nazio erai-kuntzaren proiektuak bere horretan jarraitzen duela dirudi eta aberrigintza bateratu bat oso urrun ikusten da. Eztabaida beste klabe batzuetan planteatu daiteke, bidea batera eraikitzearen ezinbestekotasunean edota helburuen maximizazio ala minimizazioan. Ingurumari honetan, Gasteizko gobernua abertzale gabe geratu da. Estaturik gabeko nazioek, barne desadostasunetatik haratago, nolabaiteko batasun bat mantendu izan ohi dute Estatua duen edo duten nazioen aurrean, gurean ordea, egoera bestelakoa da. Borroka parametroak aldatu direla dirudi abertzaletasunean, bi zutabe nagusien arteko ikusezinak bere horretan dirau eta Kataluniako formula imitatzeko tentazioa izanen da. Dudaren onura eman ahal diogu.

Abertzaletasunaren estrategia ezaz



JUDIT FERNANDEZ

Ainhoa Larrañaga*

“Abertzaletasun kontserbadoreak, lehen aldiz, urteetako hegemonia politikoa eta ondorioz, botere kuota galdu ditu. Honek apaltasunerako eta zubigintzarako ikasgai behar luke izan, baina ez da horrelakorik sumatzen”

Abertzaletasunaren erakarpen indarraren edo indarririk ezaren inguruan hitz egiterakoan, besteak beste, gaurko gizarte ereduaren gainean hitz egitea ezinbestekoa da. Komunikazioaren agintepean dagoen gizarte honetan, subjektuak egia asko jasotzen ditu handik eta hemendik. Egia absoluturik ez dagoen eta dena erlatibizatzen den gizarte da gurea. Identitate ikurrak ere, zalantzan dauden gizarteak. Aipatu arrazoiak direla eta gure gazteak abertzaletasunarekin “seduzitzea” ez da erraza. Aberrigintzarako proiektu edo amets gauzagarri bat eskaintzeak erraztuko luke bidea, osterantzean, abertzaletasunaren errelebo generazionala ez da horren erraz etorriko.

Euskal identitatearen ezaugarriak eta garai bateko errebindikazio erromantikoek ez dute oihartzunik egun. Ez dago modan sustraitua egotea, edo norberaren nortasuna zaindu, garatu eta elikatzea. Nahiz eta inoiz baino beharrezkoagoa eta tresna indartsuagoa izan identitatea sendotu eta elikatzea. Sentipena daukagunok ere, ez dakigu zelan artikulatu eta zelan formulatu. Oro har, globalizazio fenomenoak, bere erpin ekonomiko, sozial eta kulturalarekin, abertzaletasuna eta aberrigintza auzitan jarri ditu.

Hau esan ondoren, badagokigu, eragile edo protagonistei begiratua jotzea.

Erakunde abertzaleek diskurtso abertzalea errebatu egin dute eta elementu sinbolikoek bisibilitatea galdu dute. Abertzaletasun historiko-instituzionalaren estrategia izan da epelagoak erakartzea, eta horretarako, epelago agertzea jendartera. Logika osoa daukala dirudi analisi arin batekin, baina ez. Alderdi handiak –español zein euskaldun– batzuk alde batera eta besteak bestera mugitu dira. Esan nahi dut, sozialistak euskalduntxoago jantzen dira –eta jantziko dira gehiago– eta jeltzaleak transbersalago (ia transfiguratu arte). Eta martxa honetan, aparatuak bihurtzen dira helburu eta bide horretan –perspektiba galduta– ez dugu jakiten zein zen helburua: Euskal Aberria edo bakoitzaren “peneuvea”. Zalantzaren aurrean, indefinizioaren aurrean, sozialista espñolet daukate irabazteko kuotarik handiena. Beraiek dira askoz majo-agoago-demokratago eta ez dute estridentzia abertzalearen kutsadura zipriztinik ere, ez gaurko eta ezta inoizkorik ere.

Ez da erakargarria alderdi abertzaleen eskaintza politikoa, ez eta azaldu eta saltzen duten estrategia politikoa ere, eta gero abilagoak bihurtu gara zatiketarik sortzen edo bultzatzen.

“Estatuak pultsua hartu dio euskal abertzaletasunari eta bestalde, gaurko euskal gizarteak behar du abertzaletasun gaurkotu, indartsu eta erakargarri bat. Egoera honetan erantzule eta protagonista direnek ez dute erreakzionatzen, ez behintzat egoerak behar duen berehalakotasunez. Abertzaletasunaren zatiketa bere horretan da gaitza, jendea urruntzea besterik ez duelako lortzen”

Abertzaletasun kontserbadoreak, lehen aldiz, urteetako hegemonia politikoa eta ondorioz, botere kuota galdu ditu. Honek apaltasunerako eta zubigintzarako ikasgai behar luke izan, baina ez da horrelakorik sumatzen.

Abertzaletasun aurrerakoiaren esparruan ere ez da proiektu ilusionagarriak antzematen. EAren esperotako zatiketak agerian utzi ditu, politikak bizi dituen miseria guztiak. Karguei eutsi nahia, instituzionalizazioak dakarren gaitza... Eta hara eta hona egingo dute alderdiaren berezitateak zatiek. Aralarrek, bere garaian ateratako ausardiaren eraginez jaso ditu fruituak, izan da gai potentzial politikoa sortzeko. Baina, instituziotatik politika konbentzionala egiten ezarri ditu bere energia gehienak eta erakundegintzan errazegi erori da.

Ezker Abertzale tradizionalari gagozkiolarik, enegarren aldiz eskainiko zaio aukera, euren jarduna birformulatu eta indar metaketaren estrategiari atek irekitzeko. Berrito aurkitzen dira inflexio puntu baten aurrean. Azken hauteskunde europarrek, aukera berri baten atarian ipini eta jaso dute euskal gizartearen babesa eta enkargua. Eta orain ikusteko dago udazkenak emango duena.




Erakunde armatuak ere galdetu beharko dio bere buruari: Independentziaren bidean zein den bere ekarpenik onena. Nahi bada, gainontzeko galdera guztien aurretik, horren zerbitzura baitaude.

Estatuak pultsua hartu dio euskal abertzaletasunari eta bestalde, gaurko euskal gizarteak behar du abertzaletasun gaurkotu, indartsu eta erakargarri bat. Egoera honetan erantzule eta protagonista direnek ez dute erreakzionatzen, ez behintzat egoerak behar duen berehalakotasunez. Abertzaletasunaren zatiketa bere horretan da gaitza, jendea urruntzea besterik ez duelako lortzen.

Agian, norberak urrinen bizi duen formatua kontserbadorea izanik, hobe etxera begira jartzea. Independentziarako bidea ezkerretik egingo duen esparrua indartu beharra daukagu. Eragileak zenbatuta eta izendatuta daude. Intxaurragaren EA, Aralar eta Batasuna ikusi nahi ditut nik. Hor badago masa eta kapital politiko nahikoa. Esparru horrek soilik lor dezake, batuta, etorkizuneko eta egungo euskal gaztedia engantxatuko duen proiektu interesgarri eta indartsua sortzea.

* Huheziko eta Lankiko kidea

Abertzaletasunaren hautu estrategikoak zaharkitu dira



DANI BLANCO

Emilio Lopez Adan*

“Abertzaletasuna eta euskalduntasuna ez dira gauza bera; orain arte, politikan abertzaletasuna izan da bikoteko nagusia. Euskaldungoak, nazioaren oinarriak, ez luke tresna propiorik behar?”

Ez naiz sentimenduez ariko: abertzaletasuna “Euskal Herria maitatzea” baldin bada, edozein espainolista izan daiteke abertzale, eta ez diot diskutituko. Berriz, estrategiaz mintzo bagara, argia da kontzeptua: abertzaleek nahi izan dute –nahi dute...– Euskadiko burujabetza lortu, eta horretarako urrats politikoak eman dituzte. Burujabetza lortzeko batzuek estatu independente bat aldarrikatu dute, beste batzuek euskaldungoa begiratzeko gauza den autonomia, azken batzuek –gutxi...– estaturik gabeko herri eta hiri libreen federazioa.

Frankismoaren azken urteotako olde baikorraren segidan, trantsizioaren hasieran iruditu zitzaigun Hego Euskal Herriko gehiengoak onartuko zuela abertzaletasun politikoaren hegemonia. Denak posible zirudien. Eta gero, ez. Kontsigna iraultzaileak joan dira mundutik eta independentziaren ametsak erakar-garratasuna galdu du; Espainian finkatu den demokraziak legitimitate osoa eman dio Euskal Herriko espainoltasunari eta herritarren aurkako terrorismoak denak zikindu gaitu: oro har, Euskadi Autonomoko gehiengo nazionalista murrizten ari da, Nafarroan abertzaletasuna zokoratu dute, eta Ipar Euskal Herrian anekdotikoa da.

Eusko Alderdi Jeltzaleak autonomiaren aukera egin zuen, baina hogeita hamar urtez aplikatu du administrazioa eta negozioak lotzeko “ondarearen estrategia”, Erkidego Autonomoaren jabetza jainkoak emana –eta betirako– balu bezala; hori ona izan bazaio klientela sortzeko, huts egin du kontzientzia nazionala eta hizkuntza hedatzeko. Gehiago dena, demokrazia errepresentatiboa ere desprestigiatu du, zeren eta nekez sinesten ahal baita etorkizuneko arazo ekonomiko eta ekologikoei aurre egiteko, herriaren parte hartzea errespetatzeko eta Euskadi indartzeko aukera hobere-na... porlana dela: AHT, Pasaiako kanpoko portua, azpiegitura astunak...

Horra naziogintza eta demokrazia!

ETA eta ezker abertzalea, gauditua den borroka politiko-militarraren eskema luzatuz eta luzatuz, irabazteko estrategiatik urrundu dira eta nekez sendatuko den zauri bat utzi digute irekia. Egun, presoen eta errepresioaren arazoak konpondu behar badira ere, abangardia armatua mantentzeko ahaleginak atzealdeko borrokak dira, burujabetza lortzeko indar harremanetan saihesten ondorio galgarriak dituztenak. Alta, militante anitzek uste dute aurrera doazela, eta harri-garria da ikustea nola urteak eta urteak daramatzaten



Ajuria Eneak lehendakari abertzale bati eman zion ostatu hogeita hamar urtez. Maizterrez aldatu da berriki.

betiko sukar eta oldarraz, gehiago ez diren posibilitate estrategikoez mintzatzen, aspalditik ahitu diren aukerak aipatzen, inguruan denaz ohartu gabe.

Politikan, hogeita hamar urteko epea oso luzea da, eta, gainbehera ikusita, jende anitz aspertu da. Protagonistek ez dutela hutsik onartu nahi? Ezker abertzale ilegalizatua kontsolatzen dela bere kontzientzia faltsuari esker? Jeltzaleak biziko direla harrobi jabeen eta Aldundi zergen eskutik? Bejondeiela, baina estrategia desegokiak dira.

Aitzina egiteko badira pistak. Bat oso aipuan, ezkerreko polo soberanista. Ez litzateke gauza txarra izaneren, edozer egiteko indarra ere oinarrizko batasunak ematen baitu. Abertzale eta ezkertiar askori bezala, haren alde egin behar dela iruditzen zait, eta ezker abertzale ilegalizatua bere harrokeria historikoa gainditzeko gauza dela sinetsi nahi nuke... ziur izan gabe.

Polo horren ardatza estatu propioaren eskatzea izan beharko dela, hori eztabaida daiteke. Oraingoan eta luzez, hemengo populazioaren gehiengoa ez dugu alde. Gero, Europa dela eta, burujabetzak ez du hemeretzigarren mendeko eremu bera, eta euskaldungoaren aitzinarazteko errekurtsio egikorrek bil daitezke estatu gaberik. Oro har, etxean eta kanpoan beharko dugun oniritzia errazago lor genezake estatu berriaren "tragedia" martxan ezarri gabe.

Azkenik, euskaldungoaren oinarria euskaraz mintzatzen den jendetaldea izanik, ez litzateke hain gaizki euskaldunak elkartzeko eta politikan eragingarri egiteko estrategia berezi baten asmatzea. Munduan gaindi, anitz aipatzen dira jende eskubide kulturalak, eta Euskal Herri osoan bada zer egin euskaldunei toki zuzena emateko. Egun, euskaldunen elebitasuna

"Politikan, hogeita hamar urteko epea oso luzea da, eta, gainbehera ikusita, jende anitz aspertu da. Protagonistek ez dutela hutsik onartu nahi? Ezker abertzale ilegalizatua kontsolatzen dela bere kontzientzia faltsuari esker? Jeltzaleak biziko direla harrobi jabeen eta Aldundi zergen eskutik? Bejondeiela, baina estrategia desegokiak dira"

inposatu da helburu "demokratiko" bezala, erdaldunei deus eskatu gabe, eta, zinez, eleaniztasun indibiduala aberasgarria bada, "elebitasun" sozial desorekatu horrek itotzen gaitu. Zuberoan ez da haboro naturalki euskaraz funtzionatzen den gazte talderik, non ez den horretarako propio egitaratu den multzoren bat... Zuberoa "aitzindari" gerta dakiguke, euskaldunak euskaraz bizitzeko kontzientzia ona eta baliabide sozialak lortzen ez baditugu.

Abertzaletasuna eta euskalduntasuna ez dira gauza bera; orain arte, politikan abertzaletasuna izan da bikoteko nagusia. Euskaldungoak, nazioaren oinarriak, ez luke tresna propiorik behar?

** Mediku ginekologoa eta idazlea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.